



Urtero bezala euskal presoekiko elkartasun mugimenduak Olentzerorekin atera zen, Gabonak etxetik urrun pasatu dituztenak gogoratzeko. Bagatza plazatik kalejiran atera ziren eta Barakaldoko gune ezberdinetan geldiuneak egin zituzten gabon kantak abesteko. Ekimen honen bitartez euskal preso politikoen etxeratzea aldarrikatu zuten eta ez da gabonetan egingo duten ekimen bakarra. Abenduaren 29an azken ostirala izango da eta beti bezala kontzentrazioa egingo dute Bide Onera plazan 20:00etatik aurrera. Gabon zaharrea aldiz urteko azken manifestazioa egingo da 18:30ean Bide Oneratik

Argazkiak [hemen](#).